

TOLOSA / Udako liburutegia gaurtik aurrera zabalik, Usabal kiroldegian

Irailaren 12ra arte zerbitzu hau izango dute aukeran Usabalgo erabiltzaileek, astelehenetik larunbatera.

Duela urtebete ireki zuten Usabalgo kanpoaldeko guneko eta, honekin batera, udako liburutegia. Iazko arrakasta ikusita errepikatzea erabaki dute. Hala, gaurtik aurrera liburutegi zerbitzua ipini dute Usabalen; heldu den irailaren 12ra arte, igerilekkuaren denboraldia ixten duten arte, alegia, Usabalgo erabiltzaileek zerbitzua izango dute aukeran.

Astelehenetik larunbatera egongo da zabalik udako liburutegia, 15:00etatik 19:00etara bitarte. Eguraldi txarra egiten duenean ere zabalduko dutela zehaztu dute arduradunek; kasu honetan, kiroldegiko hitzaldietarako gela atonduko dute horretarako.

Hemen, 300 aldizkari eta liburu daude, eta jendeak mementoan har ditzake. Honela, alde batetik, egun bateko zerbitzua dago. Eskaintza honekin, interesatuek, han bertan dagoen liburu edo aldizkari bat hartu ahal izango dute, baina egun horretako 19:00ak baino lehen itzuli beharra dute. Bestalde, Aranburu jauregian edo Errotan dauden liburuak ere eska ditzazkete bertan. Baita itzuli ere. Zerbitzu berri honekin lotuta, hau indartzeko, Wi-fi sistemaren bidez, doan nabigatzeko aukera izango dute bertaratutakoek.

Zerbitzu anitzak guneko bakar batean

Udako liburutegiko zerbitzu nagusia irakurketarea izango da. Hala, heldu nahiz haurrentzat egunkariak, aldizkariak, komikiak, eleberri laburrak, turismoko gidaliburuak, sukaldaritzari buruzko liburuak, ipuinak, komikiak, jolasliburuak... izango dira irakurgai. Esan bezala, egun baterako eskura ahal izango dira.

Bestalde, mailegu zerbitzuaren bitartez irakurketa hori luzatu egin daiteke. Hau guztia udan ere irakurzaletasuna bultzatze aldera egin dute.

Uztailaren 15ean, ipuin kontaketa

Baina udan gaude eta etxeko txikienei merezitako oporraldiaz gozatzeko hainbat eskaintza ere egingo du udako liburutegiak. Hala, heldu den uztailaren 15ean, asteazkenarekin, ipuin kontaketa berezia izango da Usabalgo solairumean bertan. 18:00etatik aurrera 4 eta 8 urte bitarteko umeentzat zuzendutako Xantal Pinxel kontaketa izango da entzungai. Honetaz gain, margoak eta mahai jokoak ere eska diezaiekete gazteek liburutegiko arduradunei, arratsaldean zehar jolastu ahal izateko.